

AXULAR lizeoa 50 urteurrena: (1969-2019)



AZAROA 2019: PEDAGOGIAREN HILABETEA: ikastolarekin AMETS EGIN.

1. EKINTZEN DESKRIBAPENA

- 1.1 JARDUNALDI pedagogikoa.
- 1.2 MURALA.
- 1.3 LEGO serious play.
- 1.4 WORLD CAFÉ.

2. AXULAR LIZEOKO AMETSAK

- 2.1 PEDAGOGIA
- 2.2 PARTE HARTZEA
- 2.3 ESPAZIOAK
- 2.4 ANTOLAKETA

3. GEHIGARRIAK

- 3.1 GEHIGARRIA. MURALA PRESTATZEKO ERABILI DIREN ARGAZKIAK
- 3.2 GEHIGARRIA: GURE AMETSEN ZERRENDA BAT (LEGO SERIOUS PLAY ETA MURALEKO ERANTZUNAK)

1. EKINTZEN DESKRIBAPENA

2019ko azaroko hilabetean zehar, ikastolako 50 urteurrenaren barruan, PEDAGOGIAREN hilabetea ospatu zen. Lau ekintza egin ziren:


- 1.1 JARDUNALDI pedagogikoa.
- 1.2 MURALA.
- 1.3 LEGO serious play.
- 1.4 WORLD CAFÉ.

1.1 JARDUNALDI PEDAGOGIKOA

noiz: 2019.Azaroak.12

non: ORONA IDEOko aretoan.

laburpena: Aitor Uriondok (Axularreko zuzendariak) Axularrek etorkizunari nola egingo dion aurre aurkeztu zuen. Era berean, Reimagine Education Lab erakundeko zuzendaria den Xavier Aragayk hezkuntzaren etorkizunari buruzko hausnarketak azaldu zituen.



Aitor Uriondo.

Hitz klabeak: Talento, capacidades, habilidades, competencias. Colaboración, cooperación. Ilusión, compromiso, confianza. Pasión. Resultados y prestigio.



Xavier Aragay.

Hitz klabeak....

Salir de la zona de confort y diseñar una nueva educación.

Proceso participativo, sistémico y disruptivo.

Cambio cultural: una nueva mirada a la PERSONA. Nuestr@s hij@s tendrán que ser más HUMANOS que nunca porque estarán rodead@s de inteligencia artificial.

12 tendencias de innovación educativa:

#1 Un alumno que toma el protagonismo y aprende haciendo. Educación basada en experiencias.

#2 Un profesor que cambia de rol y trabaja en equipo en el aula. El profesor orienta e impulsa el trabajo individual y en equipo.

#3 Una comunidad efectiva y afectiva de aprendizaje.

#4 Inter-Trans Disciplinarietà. No enseñar las asignaturas de forma aislada. Poner retos que susciten la curiosidad e inter-relacionen las disciplinas.

#5 Agrupaciones variables de alumnos.

#6 El proceso de aprendizaje es integral: competencias, habilidades, valores

#7 La evaluación del aprendizaje se transforma. Evaluación con autoevaluación, coevaluación ...

#8 Educative inmmension

#9 AI, Big data & blockchain

#10 Transformación del espacio físico.

#11 Imprescindible evaluar las innovaciones. Método científico.

#12 Se ha de acompañar el cambio de rol del profesorado.

La transformación hay que liderarla, no sufrirla.

Requiere un cambio de nuestros marcos mentales

PÁRATE Y VISUALIZA.

(Metodología RIESDUSIS)

Liburua: "Reimaginando la educación". Xavier Aragay

1.2 MURALA: ikastolarekin amets egin

noiz: 2019.azaroak.4 - 2019.azaroak.14

non: AXULAR LIZEOA (aterpea)

laburpena: Murala ikastolako atzeko aldeko aterpean kokatu da, aniztasuna, fantasia eta sormena erakusten duten argazkien bitartez, ikastolako komunitatea ikuspegi zabalez amets egitera gonbidatzeko asmoz. Ekarpen gehienak LEGO Serious Play saiotik iritsi dira. Txosten honen lehenengo gehigarrian murala apaindu duten argazki batzuk jartzen dira. Txostenaren bigarren gehigarrian, bertan jarri ziren ametsak daude.



1.3 LEGO serious play: ikastolarekin amets egin

noiz: 2019.Azaroak.8

non: AXULAR LIZEOA (bigarren solairuko espazio berrietan)

laburpena: LEGO SERIOUS PLAY teknikak hausnarketa, komunikazioa eta arazoaren ebazpena errazten du 4 pausutan: azaldu, eraiki, partekatu eta hausnartu. Ordu eta erdiko saio gidatua izan da eta COACH & PLAY (coachandplay.es) taldeak bolondres gisa egindako lanari esker garatu ahal izan da. 108 pertsonak hartu dute parte (saioarako jarrita geneukan 100 pertsonako muga gaindituta). Erdia baino pixka bat gehiago helduak izan dira (denak gurasoak) eta beste erdia seme-alabak (denak ikasleak). 45 familiek gozatu dute Lego saio honetaz. Giro alaia egon da, jolasa eta hausnarketa uztartuz, eta bertatik 2. gehigarriko amets gehienak atera dira.



1.4 WORLD CAFÉ: ikastolarekin amets egin

noiz: 2019.Azaroak.15

non: AXULAR LIZEOA (Erabilera anitzeko gela)

laburpena: WORLD CAFÉ taldeka egiten den hausnarketa metodo bat da eta helburua muralean agertu diren ametsetatik abiatuta hausnarketa bat burutzeko izan da. 10 helduk eta 9 haurrek hartu dute parte ekimen honetan. Helduek bi mahaian hartu dute parte: batean pedagogia eta parte

2. AXULAR LIZEOKO AMETSAK



Ekintza ezberdinetan ateratako ametsak adierazteko sailkapen bat egitea komenigarria iruditu zaigu. **Lau arlotan** sailkatu dira ametsak: **PEDAGOGIA, PARTE HARTZEA, ESPAZIOAK** eta **ANTOLAKETA**.

Hauek dira AXULAR Lizeoko AMETSAK.

2.1 PEDAGOGIA

1).-Ikastolaren **HEZKUNTZA PROIEKTUA** gehiago zabaldu beharko litzateke eskola komunitatean.

2).-**Zer nolako PERTSONAK** hezi nahi ditugun eztabaidatzean, balioen lanketa, humanismoa eta pertsona erdian jartzea, kritikotasuna eta parte hartzea bultzatzea, elkarbizitzari eta harremanei garrantzia ematea, aniztasunaren errespetu eta sustapena,...

3).-**HEZKIDETZA**

4).-**GARAPEN IRAUNKORRA** (Agenda 2030, haurrekin lantzeko metodologiak martxan jarri). Agenda21-ekin lotu daitekeen zerbait?

5).-**HUMANISMOAren garrantzia** (X. Aragay: "ser más humanos que nunca...").

.-Teknologiak menderatzea garrantzitsua dela ados egonda ere, honekin batera PERTSONA zentroan jartzearen garrantzia azpimarratu zen.

.-Balioak eta boluntarioria proiektuak sustatu.

.-Pertsona erresilienteak, sendoak, mentalki osasuntsuak. Frustrazioei aurre egiten ikasi behar dute.

.- Emozioen lanketaren garrantzia azpimarratu da ere.

6).-**IKASLE KRITIKOAK, IKASLE AKTIBOAK** aldatzen ari den gizarte batean (aktibismoa). Ikasle parte hartzaileak hezi nahi baditugu, parte hartzen irakasten saiatu behar gara, eta horretarako ikasleen parte hartzea areagotzeko aukerak zabaldu beharko genituzke (adibidez, ikastolako funtzionamenduan parte hartzen ikasteko aukera - ikasle ordezkariak...-).

7).-**Ikasle-irakasle HARREMANA:** txikitan dagoen gertutasuna pixkanaka disolbatzen da DBH eta Batxilergoan.

8).-**ANIZTASUNA errespetatu eta sustatu.** Zalantza bat agertu zen: nolako aniztasuna? Gaitasun aniztetako ikasleen harrera ona azpimarratu da, baina hori ez da aniztasuna ulertzeko modu bakarra. Beste testuinguru batzuk, identitate ezberdinak, beste jatorrietako pertsonak, familia mota ezberdinak, ... ezagutu behar dituzte ikasleek.

2.2 PARTE HARTZEA

1).-**GURASO ETA IKASTOLAREN ARTEKO LOTURAREN GARRANTZIAN** intsistitu zuten guraso gehienek. Etxeko heziketaren garrantzia ere azpimarratu da, baita esfortzuaren kultura (hau, besta hainbat gauza bezala, ez da bakarrik ikastetxean irakasten, baita etxean ere). Etxea eta ikastolak KOMUNITATE bat sortzen dute. Bien arteko lotura garrantzitsu hau sustatzeko komunikazio kanal gehiago ireki behar ditugu.

2).-Gurasoen parte hartzea sustatzeko **GURASO ELKARTE** baten sorrera proposatzen da. Guraso talde bat prest dago parte hartzeko, baina beraien pertzepzioa da bide gutxi daudela ikastolan horretarako (gurasoek ez dituzte ezagutzen behintzat...). Gurasoek honetan hutsune bat identifikatzen dute: gurasoek parte hartzeko foroen beharra, , informazio gehiago behar... Beraien ustez gurasoak elkartzeko guneak behar dira (espazio eta denborak), eta bestalde guraso gehiago erakarri beharko lirateke. Guraso elkarte horretan, **BATZORDE** ezberdinak antolatzea proposatzen da: euskara batzordea, hezkidetza batzordea,...

.- Euskarari dagokionez, **IKASTOLA EUSKALDUNA** nahi dugula azpimarratu dute gurasoek. Pertsona euskaldunak hezi nahi ditugu, familia euskaldunak. Zentzu horretan, planteatu den erronka da: Zer egin daiteke ikastola euskaldunago bat lortzeko? Hasteko, bilera eta ikastolak antolatzen dituen ekimenetan, komunikazioan, etab. euskarari garrantzi gehiago ematea. Azaroko ekimen hauek euskaraz izatearen garrantzia azpimarratu zuen gurasoren batek ("gurasoak euskaraz parte hartzen, oso gustora!").


.- Hezkidetzari dagokionez, **BERDINTASUN batzorde** baten beharra ere identifikatu dute guraso batzuk. Baloreak lantzea eta berdintasun batzorde bat sortzea proposatzen da. Adibidez, M-8 taldea sortzea: hezkidetza egunerokotasunean landu behar dela ulertzen bada ere, martxoak 8 bezalako egunetan ikastolan jarrera aktiboago bat hartzea proposatzen da. Guraso, ikasle eta irakasleek parte hartuko lukete talde horretan, denok elkarrekin hezkidetza helburu duten ekimen ezberdinak bultzatuz.

3).-**GURASO ESKOLAREN INTERESA** aipatzen da, baina batzuk jakitun dira zein zaila den gurasoak horrelako ekimenetara erakartzea eta joateko zailtasunak identifikatzen dituzte: nagusiki ordutegia (ikasle gazteagoen zaintza egongo balitz agian errazagoa izango litzateke...).

Laburbilduz, hainbat gurasok KOMUNITATEA ERAIKI behar dugula aipatu dute. Komunitate hori eraikitzea ikastolaren proiektu bat izan behar da. Komunitatea, ikasle-irakasle- langile-gurasoek osatuko lukete. Baina komunitate hori kanpora irekia egon beharko litzateke: ikastola auzoa eta hiriarekin elkarrekin harremanetan jartzen duen komunitatea, baita munduari irekia ere. Denok egin dezakegu ekarpena.

2.3 ESPAZIOAK

1).-ARETO berria. Toki esanguratsu batean, ahal bada sarrerako oinean. Ikastolako irudi berria. Erabilerak: gurasoen bilera orokorrak, klaustroa, emanaldiak, ikuskizunak... Eraikuntza berri bat gaur eguneko futbol zelairuntz. **IGOGAILUA** izango luke (gaur eguneko "salvaescaleras"-a kendu). Behe oinean: ARETOA. 1 eta 2 solairuan: gela anitzak, espazio berriak... Beheran, futbol zelaiaren mailan, aterpea. Gaur eguneko aretoko espazioa libre geratuko litzateke. Erabilera posibleak: gela anitzean bilakatu, eskolaz kanpoko ekintzak, psikomotritate gela...



2).-LIBURUTEGI berria. Etxeko lanak edo taldeko lanak egiteko espazioa. Irakurtzeko txokoak. Solasaldi lasaierako gunea. Hausnarketa, eztabaida eta oratoriarako espazioa. Agora.

3).-EGOTEKO ESPAZIO GOXOAK. Gaur eguneko harmailen zona bat egokitu. "Soft". Solasaldia, irakurketa, taldeko lana, bakarkako lana...

4).-ATERPE gehiago. Kanpoaldean eurtik babesteko zonaldeak. Eguraldi txarra eta hotza egiten duenean barruan goxo egoteko espazio gehiago.

5).-**SUKALDEA** ikastolan bertan egotea. Janaria bertan egina (Km0...). Areto berria eginez gero, psikomotrizitate gela areto zaharrera eraman daiteke, eta espazio hau aske utzi bertan SUKALDE berria egiteko. Bertan ere, ikasleentzat SUKALDARITZA IKASTEKO aukera.

6).-**JANTOKIA**. Kafetegi itxura duen jantokia. Mahai borobilak. Janaria plateretan. Solasaldirako gunekak. Handiagoa. Momentu berdinean jateko ikasle gehiagorako tokia. Orduategien berrantolaketarako lagunduko luke.

7).-**JOLASTOKIA**. Hurrei mugitzeko askatasun gehiago ematen dien eta naturarekin konexio gehiago duen jolastokia proposatzen da. Jolastokiaren erabilera anitzago bat bultzatu behar da.

.-Gaur egun FRONTOIA ilun xamar, harmaila hotzen ordez, lasai egoteko eta denbora librerako goxotasuna transmitituko lukeen espazio gehiago sortzea.

.- Kirolak frontoira eraman, eta gaur eguneko futbol-gunea beste era bateko JOLASTOKI EREDU batean bihurtu: erabilera anitza, egon, hitz egin, mugitu, saltoka aritu, ezkutatu, maldan gora ta behera....

.-BESTE KIROLAK bultzatu, futbolak bere espazioa behar du, baina ez espazio-denbora guztia....

.-KOLUNPIO gehiago.

8).-**BARRANKOA (MALDA)** berrantolatu. Dituen aukerak aprobetxatu eta psikomotrizitatearekin zerikusia duten jokoekin hornitu. Etxetxoak. Rokodromoa. Tunelak. Txirristra. Erreka. Tirolina...


9).-**BERDEGUNE** gehiago. Baratza bultzatu.

10).-**GELA HANDIAGOAK** behar dira, kasu batzuk oso txikiak dira eta ez dute mugimendu librerako aukera bermatzen (batez ere HH4-HH5). Gela irekiak eta multi-funtzionalak, argiakoak, goiko pisuan bezala. 3-5 urteko hurrek SIESTA botatzeko espazioa, konfiantza pedagogiarekin jarraitzeko.


11).-**ESPAZIOAK BERRITZEN JARRAITU**. Goiko pisuan egin dena (2018) pixkanaka ikastola guztira zabaldu. Espazioetan GOXOTASUNA eta ARGITASUNA lortu erabiltzen diren materialen bitartez.

12).-**SARRERAKO APARKALEKUA OINEZKOENTZAT JARRI**. Espazioa oinezkoentzat berreskuratu. Bus aparkalekuarekin elkarbizitza bermatu.


13).-**ESPALOI BERRIA**. Sarrerako errotondaren eskubialdetik espaloia jarraitasuna eman, bide "naturala" oinezkoentzat berreskuperatzeko. Zebra-bide berria ikastolara sartzeko.




14).-OINEZKOENTZAKO BIDE BAERRIA (Mantulene kaletik). Mantulene kaletik, gaur eguneko belarditik, oinezkoentzat bide seguru berri bat egin.




15).-MARKESINA BERRIA. Gaur eguneko biribilgunean (rotonda) markesina berri bat eraiki. Haurrak utzi eta jasotzeko estalitako gune segurua. Haur txikientzako ere toki egokia izan daiteke. Horretarako laguntzaileak beharko liriateke (bertan jaso eta gelara eramateaz arduratuko liriateke). Gune honek egoki funtzionatzeko kotxe aparkalekuak kendu behar dira.



16).-AUTOEN ZIRKULAZIOA: BIZIKIDETZA. Espaloiak libre mantendu. Bizikidetza eta sen ona. Markesinak honetan lagunduko luke.





17).- PISZINA eta ITURRIAK.

18).- BELAR FUTBOL ZELAIA.

19).- BIDEO JOKU GELA.

20).- KAFETEGIA.

2.4 ANTOLAKETA

Arlo honi dagokionez, bi gai nagusi azaldu dira: ordutegia eta mugikortasunaren antolaketa.

1).-**ORDUTEGIA**, gai delikatua. Eguerdiko ordutegia murrizteko proposamena azaldu da, arratsaldean behar duenarentzat zaintzak jartzeko aukerarekin. Ordutegia aldatu, txikien kasuan eguerdiko denbora murriztuz eta DBH1-etik aurrera 15:00etan atera. Tarteko orduak luzeegiak dira, murriztu daitezke. Errefortzu orduak ordu lektiboen barruan egotea proposatu da ere. Errefortzu ordu hauek 15:00etatik aurrera eskainiko lirateke: Irakasleentzat ordu lektiboak izanik, ikasleek hainbat arloetan errefortzuak jasotzeko aukerak izango lituzke.

2).-**GARRAIOBIDEAK-MUGIKORTASUNA**: kotxeak ikastolatik ateratzeko beharra planteatu da ("Kotxeek toki asko jaten dute"). Ikastola pareko aparkalekuak berreskuratzeko aukera, espazioak peatonalizatu. Mugikortasunarekin jarraituz, ikastola sarrerako errotondan markesina bat jartzea proposatzen da; horrela gurasoek haurrak bertan jaso ditzakete. Haur gazteen kasuan zaintzaileak egon daitezke gurasoek haurrak jaso arte.

3. GEHIGARRIAK

3.1. GEHIGARRIA. MURALA PRESTATZEKO ERABILI DIREN ARGAZKIAK



3.2. GEHIGARRIA: GURE AMETSEN ZERRENDA BAT (LEGO SERIOUS PLAY ETA MURALEKO ERANTZUNAK)

Jolasteko eta kiroletarako instalazioak, espazioak

- Jolas orduan 2 ordu gehiago.
- Jolastoki diseinu anitza.
- Kirol ezberdinak, jolasteko, soinketarako.
- Kirol "tradizionaletatik" kanpo, beste kirolak probatu eta jokatzeko aukera dago.
- Txikientzako parke gehiago kanpoan
- Espazio libreak haurren mugimendua sustatuko duena.
- Espazio gehiago jolasteko
- Jolastu, eskalatu.
- Rokodromoa, baratza,...
- Rokodromoa. Parke txikian tunela. Lanak egiteko txokoa. Gaietik saltatzeko kartoizko kaxak. Maldan etxetxea.
- Maldan etxetxea
- Mendi gehiago egotea malda bezala. Altxorak bilatu.
- Kolupio gehiago, errespetu gehiago, lagunak zaindu.
- Txirristak egotea
- Jolastokian: futbol zelaia belarrarekin, rokodromoa, baratza.
- Jolastoki handiagoa.
- Jolastoki handiago bat. Kolupio gehio nahi dugu mesedez.
- Un frontón berria, un gimnasio cubierto,
- Parke txikian tunela
- Gaietik saltatzeko kartoizko kaxak
- Instalakuntzak berritzea (jolastokia)
- Piszina, iturria
- Erreka
- Berrikuntza. irekia.
- Asteazkenetan ere baloia: Jolastoki hezitzaile, disziplina anitzekoa (kirolak, jolasak, natura, gune lasaiak, ...), inklusiboa (generoa, behar bereziak, adinak, arrazak, ...). Espazio fisikoa arrazionalki berrantolatuz eta auzolanean eraikiz.
- Planoak ere jarri dira espazio berriak proposatuz eta oraingo espazioen berrantolaketa bat ere. Plano hauen xehetasunak 2.3 atalean daude.
- Ekilibrio lekua.
- Futbola.
- Futbol zelaia.
- Belarrezko futbol zelaia. Tesoro bilatzeko jokuak.
- Pertsona guztien arteko begirunea sustatu

- Pistina txirristekin eta tranpolinarekin. 108 hamaka. Tirolina arnesarekin

Barruko instalazioak, espazioak

- Leku polit bat (egoteko, ikasteko, jolasteko...)
- Lanak egiteko txokoa
- Liburutegi bat lan egiteko (margotzeko, irakurtzeko, ...)
- Euri egunetan barrura sartzeko gela.
- HH eta LH berritu.
- Kafetegia.

Jangela

- Zerbitzuak hobetu (jangela).
- Jangela hobetu
- Bakoitza bere janaria ekartzea.
- Jangela con comida CASERA y platos en lugar de bandeja.
- Jangelan elikadura gehiago zaindu
- Jangela handiagoa, sukaldea ikastolan
- Bertako sukaldea, haurren janaria bertako sukalde batean egitea,
- Haurren janaria bertako sukalde batetan egiten da.
- Bertako sukaldea.

Animaliak

- Animaliak egon behar dira ikastolan (*"Animaliak de apollo"*).

Garraioa

- Zerbitzua hobetu (garraioa).
- Autobus zerbitzua hobetu!! bonoak.
- Garraioa hobetu.
- Ikastolaren esku bakarrik ez dagoen arren, bidegorri bat irudikatu dugu ikastolara oinez edo bizikletaz joan gaitezen adierazteko kutsadura murrizten lagunduko lukeena.
- Bidegorri bat ikastolara oinez edo bizikletaz joan gaitezen (kutsadura murrizten lagunduko lukeena)
- Bide seguruak.

- Astelehenetan kotxerik gabe: Astelehenetan (hasteko) denok oinez ikastolara, gurasoen arteko auzolanean eta bide seguru seguruak bermatuz.

Siesta

- Siesta egiteko aukera 3 urteko gelan

Ordutegia

- Ordutegia aldatu (lehenago atara)
- Ordutegia aldatu. 16:30 etara.

Elkarbizitza eta parte hartzea ikastola barruan

- Jendea pertsonak errespetuz tratatzen dituenak. Handiek txikiak errespetuz tratatzea.
- Aniztasuna-errespetoa.
- Jasangarritasuna, berdintasuna eta aniztasuna, egungo gizartea hobe erreflejatzen duena.
- Handiak txikiak errespetuz tratatzea
- Nere ustez ikastolara familia etorri behar da. Nere ustez animaliak egon behar dira. nere ustez jolas ordua luzeagoa izan behar da. Nere ustez ikastolan gurasoak gurekin egon behar dute zeba AITA eta AMA egon behar dute maite ditugulako.
- Familiarra, kolaboratiboa, solidarioa, hobetzen saiatzen.
- Hezkidetza euskalduna naturzalea inklusiboa. Pertsona erdigunean. Animaliekiko errespetua. Berdintasuna.
- Gurasoek parte hartzen handia dute, ikastola hobetzeko bultzatuz eta lagunduz,
- komunitatea elkarlanean: familien parte hartzeko foroak eraikiz (ikasgeletan nahiz beste espazioetan).
- Jende ezberdinez osaturiko ikastola bat. Que todo tipo de personas entren a la ikastola. Por ejemplo: americanos, discapacitados, extranjeros. (Vamos una ikastola social)
- Zoriontsu.
- Ikastola anitza. Mugarik ez.
- Ikasle guztien arteko berdintasuna sustatu eta ezberdintasunak desagertu
- Ni naidut mini kartzel batzuk ume gaistoentzat.

Euskara

- Euskaraz bizitzea.
- Ikastola euskaldun batekin amesten dugu.

Ikasketak/formakuntza

- Sukaldaritza ikasteko aukera/gela
- Nabe espaziala nola ibiltzen den ikastea. ikasleak bizitzako arloetan jakindurak bereganatzeko. dinosaurioen gauzak irakastea.
- Bideo-joko gela bat
- Soinketa gehiago
- Gizarte eta munduarekin zubiak eraikitzen dituen ikastola
- Arte eta letrek pisu handiagoa izatea, gizartea aberastuz. Humanismoa sustatzea.
- Orijinaltasuna bultzatzea, haurren sormena eta ekintzailatza bultzatuko duen ikastola.
- Haurren sormena, ekinzaletasuna bermatzen duena.
- Munduko etorkizuna hobetzeko gauzak ikastea. Sormena gehiago lantzea.
- Ametsak betetzeko lehen pausoak ematen laguntzen digun eskola. Aniztasuna onartuz, elkarri laguntzen erakusten diguna.
- Baloreak dituzten haurrak, autonomoak, pertsonak osotasunean eraikitzen lagundu.
- Baloreak
- Baloreak ez ditzagun ahaztu ...
- Pertsonak osotasunean eraikitzen lagundu
- Etengabe ikasi, hobetu eta berritzeko grina guztiz barneratuta dugun pertsonak hezi eta garatzen gara Axularren. Etorkizunerako gizartearen behar eta ezaugarrietara moldatu eta, era berean, gizartea hobera moldatzeko gaitasunak ditugun euskal hiritarrak.
- Mentalki sendoak eta kreatiboak diren pertsonak sortzea
- Soft skills. Hizkuntzak. Taldeko lana + individual garapena.

Berrikuntzak

- Berrikuntzak bultzatzen dituen eta beti hobetzen dabilen ikastola